

Osasungoa Euskalduntzeko Erakundea

Osakidetzari eta Medikuntzari begira

Osasungoa Euskalduntzeko Erakundea (OEE) 1990ean sortu zen, euskara osasun arloan bultzatzeko asmoz. OEEko Karlos Iburguren kideak Osakidetzako eta EHUko Medikuntza ikasketetako euskararen argazkia egiten lagundu digu, besteak beste.

SAIOA LABAKA



ARGAZKI PRESS / LUIS JAUREGIALTZO

EHUko Medikuntza Fakultateko ikasleak Leioan, ikasketak euskaraz egin ezin dituztelako protestaka.

DUELA 21 URTE sortutako erakundeak bi gauza hartu zituen kontuan. Alde batetik, gaixoei asistentzia euskaraz emateko nahikoa profesional ez zegoela, eta bestetik, euskaraz zekiten profesionalak ere, zailtasunak izaten zituztela osasunaren inguruko gaiez euskaraz egoki mintzatzeko. Euren errebindikazioak bideratzeko bi helburu nagusi finkatu zituen erakundeak: profesional euskaldun gehiago lortzea eta hizkuntza gaitasun egokia lortzeko trebakuntza eskaintzea.

Egun, OEEk 600dik gora bazkide ditu. Osasunarekin lotura daukaten pertsonak dira erakunde

kideak: erakunde publiko zein pribatuetako medikuak eta erizainak, unibertsitateko irakasleak, ikasleak eta abar.

Agote eta Ugarteburu sariak

Jomugetara iristeko, hainbat ekintza antolatzen ditu OEEk Gipuzkoan, Bizkaian, Araban eta Nafarroan. Lurralde horietan jarduerak antolatzeko egitura badu erakundeak, eta lurralde horietako osasun zerbitzuen egoera gertutik ezagutzen du; Osakidetzan (EAE) eta Osasunbidean (Nafarroa) lan egiten baitute bazkide gehienek. Iparraldeko egoera, berriz, ez dute nahi adina eza-

gutzen; kide gutxi baitituzte lanean. Jarduerak Iparraldean ere antolatzeari da erakundearen nahietako bat. 1991tik aurrera, urtez urte, osasunari buruzko jardunaldiak antolatzen ditu OEEk profesionalen prestakuntza eta terminologia hobetzeko eta gaixoei euskarazko harreman profesional hobea eskaintzeko. Asko dira jorratu izan dituzten gaiak: gaixotasun infekziosoak, osasun arazoak zahartzaroan, eritasun kronikoak, larrialdiak, genetika, gaixo terminalak, emakumeak eta osasuna, eta abar. Aurten, ikerkuntzaren gaia landu dute Gasteizen, ekainaren 3an eta 4an.

Osasun eremuko testuen argitalpena bultzatzeko, berriz, Agote saria antolatzen du erakundeak. Unibertsitatera begira, euskarazko materiala sortzeko laguntza ematen du sariak eta hainbat liburu argitaratu dira sariketa honi esker. Azken urteetan, Ugarteburu saria ere antolatu dute Azkue Fundazioarekin batera; euskarazko wikipedian sortzen diren artikulurik onenak saritzen dituzte. Tarteka, euskarazko saio klinikoak antolatzen dituzte ospitaleetan eta baita bertso-saio klinikoak ere.

Boloniaren eragina Medikuntzan

Unibertsitateko egoera ere ezagutzen du OEEK, erakundeko kide asko unibertsitateko irakasleak baitira. Medikuntza eta Erizaintza euskaraz ikasteko oraindik arazoak daude eta Bolonia planarekin sortu diren arazo berriak aintzat hartzekoak dira. Karlos Ibarguren OEEko Gipuzkoako ordezkaria da eta Osakidetzako Emergentziak erakundeko medikua. Hala adierazi digu berak: “Medikuntzako eta Erizaintzako euskal adarra gorantz joan da azken urteetan, eta ikasleak gustura ateratu dira. Bolonia planarekin, ordea, euskal adarrak behera egingo duen sumoa daukagu. Izan ere, Espainia osorako esparru akademiko bakarra sortu dutenez, edonork dauka orain EHUen Medikuntza ikasteko aukera. Puntu altuenen arabera sarbidea dauka Medikuntzak, eta hemengo jende askok kanpora joan beharko du karrera ikastera. Ondorioz, hemendik urte batzuetara, ikasketak euskaraz egin ez dituzten profesionalak izango ditugu gure artean. Kezkatuta gaude arazo horrekin”.

Euskara plan berantiarra Osakidetzan

Osasun zerbitzuentzat, gaixoari asistentzia euskaraz ematea oinarritzko eta funtsezko gauza izan

behar luke, erakundearen ustez. Euskal Autonomia Erkidegoan, Osakidetzan, 2005ean jarri zen abian lehen euskara plana, erakundeak sortu eta 22 urtera. OEEren ustez beranduegi etorri da eta ez dio asebererik uzten. Osasunbidean, Nafarroan, zerbitzua euskaraz jasotzeko eskubidea zonalde euskaldunean baino ez dago; Iparraldean hori ere ez.

Euskararen egoera Osakidetzan zein den gertutik ezagutzen duenez, gaitetik bada ere euskara plana zertan den galdetu diogu Karlos Ibargureni. OEEK hutsune nabarmenak ikusten dizkio Osakidetzako euskara planari. Batetik, euskara planak

“Hemendik urte batzuetara, Medikuntza ikasketak euskaraz egin ez dituzten profesionalak izango ditugu gure artean”

**KARLOS IBARGUREN,
OEEKO KIDEA**

gaixoei asistentzia euskaraz ematea bultzatzen badu ere, euskara lan hizkuntza gisa ez duela aintzat hartzen dio elkarrekin. Langileak euskaraz bizi eta lan egiteko aukera izatea funtsezkoa iruditzen zaio elkarrekin. “Osakidetzak bermatu behar duen lehendabiziko gauza, gaixoak euskarazko asistentzia jasotzeko eskubidea izatea da. Eta egun, euskarazko asistentzia ez dago ziurtaturik eta larria da hori. Esfortzu handia egin da lehen mailako asistentzian, pediatrian eta jendaurreko administrazio postuetan, baina ez da guttiz lortu. Arlo espezializatuan egoera okerragoa da. Orain dela gutxi, Behatokiak *Duintasun bidea* dokumentala plazaratu du Kepa Elortzaren bizipenean oinarriturik. Jende

askok antzeko egoerak bizi izan ditu. Hori da errealitatea”.

Bestetik, gizartean euskara gehiago hitz egiten denez, modu naturalean Osakidetzako langileen artean euskaraz dakien jende gehiago dagoela ere gaineratu digu Ibargurenek. Era berean, euskara planak lanpostu batzuetarako euskara lehensatu du, zenbait lanpostuetan hizkuntza eskakizunak betetzeko datak ezarri dira eta oposaketetan euskara jakiteak puntuak ematen ditu. Horrek guztiak euskara dakien langile gehiago ekarri du Osakidetzara. “Halere, Euskal Autonomia Erkidegoan euskara ofiziala den momentutik, eta hainbeste urte pasa ondoren, ez zaigu normala iruditzen euskaraz ez dakien jendea lanean hastea. Hezkuntza sistematik asistentzia euskaraz emateko gai ez den jendea ateratzen bada, arazoa konpondu egin beharko da”.

Euskara plana bera ere ez dela guttiz betetzen azaldu digu Ibargurenek. “Gauzak beste era batera egin daitezkeela pentsatzen dugu eta arazo bat dagoela onartzea eskatzen dugu. Osasun zerbitzu publikoan doan gaixoak eskubidea izan behar du euskaraz asistentzia jasotzeko. Konponbidea eman behar zaio arazoari. Entzun behar izan dugu garrantzitsuen zurrak onak edukitzea dela, eta ez euskaldunak. Hori ez da konponbidea eta jarrera horrek min ematen digu”.

Osasun zerbitzu pribatuei dago kienez, bertan lanean ari diren euskaldunak ez dira Osakidetzan ari direnak baino gehiago, Ibargurenen ustez. Zenbait erakunde pribatu Osakidetzarekin kontzertatuta daude, eta beraz, euskara planaren ildotik, Osakidetzari eskatzen zaion berdina eskatu beharko liekete: “Hor ere nahiko utzikeria dago. Urte hauetan, kontzertatutako zerbitzu pribatuei ez zaie eskatu gure iritziz eskatu behar litzaiekeen guztia”. ■

Babeslea: Getxoko Udala